

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### BIKAIN ziurtagiria

#### INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016/04/19

1	<b>Izena</b>	BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria
2	<b>Hizkuntza</b>	Euskara
3	<b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Arlo sozio-ekonomikoa
4	<b>Kontakturako helbidea edo telefonoa</b>	Jorge Giménez Bech, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila – EUSKO JAURLARITZA  <a href="mailto:j-gimenezbech@euskadi.eus">j-gimenezbech@euskadi.eus</a>  Tel.: 945019456
5	<b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)	<a href="https://www.euskalit.net/bikain/">https://www.euskalit.net/bikain/</a>  <a href="http://www.euskara.euskadi.eus/r59-11477/eu/">http://www.euskara.euskadi.eus/r59-11477/eu/</a>

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

1	<b>Praktikaren azalpena</b>	BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria. Ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak luzatzen duena, eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena.
2	<b>Praktikaren azalpenaren laburpena</b>	Ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak luzatzen duena, eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena.  Ebaluazio bat egin ondoren eskura daitekeen ziurtagiria da, hortaz. Ebaluazio horretan EMEn (Erreferentzia Marko Estandarrean) jasotako itemak zein hizkuntzatan dauden eta nola kudeatzen diren egiaztatzen da.



Bikain sistemaren arabera 1000 puntu lor litezke gehienez ere, %100eko betetze-maila alegia. Hori horrela, hiru aitortza-maila edo ziurtagiri ezarri dira, kolore bana dutelarik:

- Oinarrizko maila edo Bikain beltza 200 puntu gutxienez
- Tarteko maila edo Bikain zilarra 400 puntu gutxienez
- Goi maila edo Bikain urrea 700 puntu gutxienez

Ziurtagiriek eskuratu diren urtea azalduko dute.

Ebaluazio-prozesu honek antza du enpresen kudeaketaren garapen-maila ebaluatzeko erabili ohi den metodoarekin, baina nabarmen arinagoa da: funtsean, kanpoko talde ebaluatzaile batek enpresa ebaluatuko du, indar-guneak eta zer hobetuak identifikatuz. Horretarako aurrez helarazitako informazioa irakurriko du eta enpresa bisitatuko du. Ebaluazioa da, eta ez auditoria.

Ebaluazioak egiteko Ebaluatzaileen Kluba sortu zen, eta une honetan 550 kide daude.

Ebaluazio-prozesua bukatzen denean, ekitaldi publiko bat egiten da, urte horretan ebaluatutako izan diren enpresei/erakundeei eskuratutako ziurtagiria banatzeko.

**3**      **Aurrekariak**  
(Inplementazioa  
burutzeko motibazioa,  
identifikaturiko beharrak)

2006. urtean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak LanHitz programa markoa abiarazi zuen. Ildo horretatik aurrera eginda, hitzarmen bana izenpetu zen honako eragile sozio-ekonomiko nagusiekin: CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA enpresa-elkarteekin lehenik, Euskal Autonomia Erkidegoan gehiengoan duten sindikatuekin (ELA, CCOO, LAB eta UGT), bigarrenik, eta azkenik, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin. Akordio horietan berariaz jasotzen da Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa enpresetan euskara zenbat erabiltzen den ebaluatzeko eta aztertzeke sistema sortzeko, gaur egun erabiltzen diren kalitate- eta berrikuntza-parametroak oinarri hartuta.

**4**      **Helburuak**

#### **EBALUAZIO- ETA EGIAZTAPEN-SISTEMAREN HELBURUAK**

- Euskararen erabilera areagotzeko dinamikan diharduten erakundeei ekarpen kualifikatuak jasotzeko aukera ematea, kanpoko adituen ebaluazioaren bitartez, beren indarguneak sendotu, zer hobetuak begiz jo, eta aurrera egiteko oinarrizko orientabideak jaso ditzaten.



- Honelako prozesuak abian dituzten erakundeei egindako lanaren eta ahaleginaren aitortza egin eta berme instituzionala eskaintzea.
- Erakundeei praktikarik onenak partekatzeko aukera eskaintzea.
- Erakunde hauetako askotan erabiltzen diren kudeaketa-sistema aurreratuetan hizkuntza-irizpideak txertatzeko bideak eskaintzea.
- Euskararen erabileraren eta presentziaren aldeko dinamika suspergarri eta bizigarria sortzea enpresetan, haien etengabeko hobekuntza sustatuz.
- 

**5 Eragin esparru nagusia eta albokoak**

Lan-mundua. Kanpo-ebaluazioaren zerbitzua eskatu ahal dute erakunde publiko eta pribatuek, negozio-unitateek eta erakunde handien lan-zentroek, baldin eta beren jarduera nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute.

2017. urteari begira, BIKAIN eredu (EME) berrikusten ari gara. BIKAIN sortu zenetik 8 urte pasa direnez, eredu berraztertu, arindu eta eguneratzeko garaia iritsi delakoan gaude, eta lan horri ekin diogu, betiere sistemaren eraginkortasuna bermatuz, eta entitate gehiagoren artean zabaltzeko asmoz. Horren ildotik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburuetako bat da etorkizun laburrera/ertainera BIKAIN beste zenbait arlotan ezarrita dituen helburu estrategikoekin lerrokatzea, esaterako, herri-administrazioetako erabilera-planekin. Horren helburua da erabilera-planak BIKAIN ereduaren arabera egituratzea eta egitura bera bateratzea, eta BIKAIN ebaluazioa, ziurtagiria eskuratzeko erabiltzeaz gain, erabilera-planetan egiten diren tarteko eta bukaerako ebaluazioetako datuak lortzeko erabiltzea.

**6 Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak**

**7 Inplementazio-epea**

2009ko martxoaren 3ko 53/2009 Dekretuak BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortu zuen (Dekretu honek Indargabetzeko Xedapen baten bitartez indarge utzi zuen 2008ko martxoaren 5eko Agindua, BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria sortzen zuena. 2008an proba pilotu izan egin zen zenbait enpresarekin). Dekretu honen 7. artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzak doako ebaluazio-zerbitzua eskainiko die hizkuntza-kudeaketa arloan egiaztapena lortu nahi duten entitate publiko zein pribatuei. Horretarako, arestian aipatutako artikuluari jarraiki, urtero deialdi publikoa atera behar da. Lehen deialdia 2009an egin zen eta azkena 2015ean. 2016ko deialdia izapidetze-fasean dago. Hasierako deialdietan ebaluazioa jasotzen zuten enpresen kopurua mugatua bazen ere (gehienez 30 entitate), 2013. urteko deialditik aurrera deialdi irekia egiten da.

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

- 8 Hedapena** (eragiten dien pertsona kopurua, barne-kanpo hedapena...)
- 2008-2015 aldian BIKAIN Ziurtagiri maila bat lortu duten enpresen langile-kopurua 45.435ekoa da. Ebaluatzaile Klubaren kasuan, 2015ean 550 lagun zeuden. BIKAIN osatzen duten organoei dagokienez, Idazkaritza Teknikoan HPSko 2 langilek eta kudeaketan laguntzeko kontratatzen den enpresako ordezkari batek hartzen dute parte. Artezkaritza Kontseiluaren eta Kudeaketa Batzorde Eragilearen kasuan, 13 kidek osatzen dute.
- 9 Inbertsioa** (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)
- Urtero deialdia argitaratzen da EHAAn interesa duten enpresek/erakundeek kanpo-ebaluazioa eska dezaten. Diru-baliabideei dagokienez, 2008-2015 aldian gastatutako dirua 1.034.063,83 eurokoa izan da horrela banatuta: ebaluazio-prozesua kudeatzeko, ebaluatzaileentzako prestakuntza egiteko eta ziurtagiriak banatzeko ekitaldiak antolatuzko 497.963,83 euro, eta prozesuaren kudeaketan laguntzeko enpresa aholkularia kontratazeko gastua 536.100,00 eurokoa izan da. Hor ez da sartzen HPSko bi langileen lana.
- 10 Lortutako emaitzak**
- 2008-2015 aldian lortutako ziurtagiriak:
- |                   |     |
|-------------------|-----|
| Goi-mailakoak     | 101 |
| Tarteko mailakoak | 106 |
| Oinarrizkoak      | 54  |
| GUZTIRA           | 261 |
- 11 Dokumentazioa erreferentziarako materiala**
- BIKAIN web gunean: <https://www.euskalit.net/bikain/>



- 12      **Aurkezpen bideoa**
- 13      **Intereseko informazio  
gehigarrik**

